

JOKABIDE ZIBIKOARI BURUZKO ETA BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA OKUPAZIOA ETA GARBIKETA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

AURKIBIDEA

ARRAZOEN AZALPENA

ATARIKO TITULUA

- I. Kapitulua. Xedapen Orokorrak. (1-5 art.)
- II. Kapitulua. Bide publikoen izendapena eta errotulazioa. (6-7 art.)

I. TITULUA. JOKABIDE ZIBIKOA BIDE PUBLIKOAN.

- I. Kapitulua. Xedapen Orokorrak. (8-11 art.)
- II. Kapitulua. Jokabide zibikoa. (12-17 art.)

II. TITULUA. BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA

- I. Kapitulua. Bide publikoaren garbiketa erabilera arruntatik. (18-31 art.)
 - I. Atala. Bide publikoaren garbiketa hiritarren erabilera arrunt eta orokorraren ondorioz. (18-22 art.)
 - II. Atala. Merkataritza eta industri jardueri loturiko garbiketa. (23-29 art.)
 - III. Atala. Animaliak eraman edo edukitzeari loturiko garbiketa. (30-31 art.)
- II. Kapitulua. Bide publikoaren garbiketa erabilera arrunt bereziaren, erabilera pribatiboaren eta ekitaldi publikoen ondorioz. (32-35 art.)
- III. Kapitulua. Egiten diren obrei loturiko bide publikoaren garbiketa. (36-41 art.)

III. TITULUA. HIGIEZINEN KANPOALDEKO GARBIKETA

- I. Kapitulua. Eraikin publiko eta pribatuen kanpoaldeko garbiketa eta hiri paisaiarekiko errespetua. (42-46 art.)
- II. Kapitulua. Urbanizazio eta orubeen garbiketa. (47-48 art.)

IV. TITULUA. BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA ETA ERABILERA

- I. Kapitulua. Xedapen orokorrak. (49-52 art.)
- II. Kapitulua. Elementuak bide publikoan. (53-58 art.)
- III. Kapitulua. Mudantzak (59 art.)

V. TITULUA. ZIGOR ERREGIMENA

- I. Atala. Arau-haustek, isunak eta borondatezko lanak. (60-63 art.)
- II. Atala. Erantzuleak. (64 art.)
- III. Atala. Kaltea konpontzea eta garbiketaren egoera leheneratzea. (65 art.)
- IV. Atala. Prozedura. (65 art)

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

AZKEN XEDAPENA

ARRAZOIEN AZALPENA

Hiri bateko garbiketa, ongizatea eta apaindura publikoa komunitatearen balioak dira, eta balio horiek behar bezala babestu behar dira berariazko tresna arau-emaile baten bidez.

Gizarte moderno batean, hiritarren arteko bizikidetza askatasun eta tolerantziaren barruan babestu behar da, prebentzioan eta gizarte uste sendoetan oinarrituta, eta guztiz hondar-balioa eman behar zaio jokaera ez egokien errepresioari.

Hiritarrak, haiek ordezkatzeko dituzten erakundeak, auzo elkarteak, gizarte taldeak, ikastetxeak, eta abar, horietan berak dira, irizpide arduratsu batean oinarrituta, hiri bat garbia, alaia, osasungarria, eroso izan dadin lor dezaketenak.

Zeregin horretan, paisaia babesteko, hiria eta irundarren eskura jarritako ondare guztia errespetatzeko lanean, hezkuntza zentroen, familiaren, hiritarren mugimenduaren eta, oro har, irundar guztien partaidetza askoz ere garrantzitsuagoa da zibikoak ez diren jokabideak santzioen bidez zuzentzea baino.

Udalak, azken urte hauetan ahalegin handia egin du irundarren bizikaltatea hobetzeko. Oinezkoentzako eremuak sortzea, hiri erdia eraberritzea, hiri erdian barrena trafikoa berriro antolatzea, parke eta plazak egitea, arkitektura trabak kentzea, pintadak garbitzeko etengabeko ahalegin hori, hiri altzariak berritzea, bideak garbitzea eta hiri hondakinak gaika biltzea bezalako jarduerak lagundu egin behar dute jokabide zibiko egokia izateko ohiturak bultzatzen.

Gure hirian, beste askotan bezala, pintada, grafiti eta kartelek, etxe abereen gorotzek, lurrera botatzen diren zaborrek, kontrolik gabeko iragarkiek, motorrek eta kontaminazio akustikoaren maila gorenak gaituzten beste jarduera batzuek eragindako zarata karrankariek sortutako arazoak jasaten ditugu, hiri altzariak eta haurrek jolasteko jokoak hondatzen dituzte ekintza bandalikoek, zaborraren edukiontzia gaizki erabiltzen dira, legez kontrako isurketak egiten dira eta abar.

Irungo Udalak, hiriaren irudia eta hiritarren bizikidetza hobetzeko xedean, Ordenantza hau prestatu du jarrera eta jokabide zabor eta arduragabeak zuzentzeko tresna gisa.

Ordenantza honek hiriko espazio publikoak modu arrazional eta antolatuan erabiltzeko oinarriak zehaztea du xede. Horrez gainera, askotan ahazten den eta gure eguneroko bizitzaren oinarria eratzen duen hori babestu nahi du. Ezinbestekoa da izpiritu zibikoa txikitatik bultzatzea, eta guztiok izpiritu hori praktikan jartzea, gure hiria gero eta garbiagoa, ederragoa eta bizitzeko egokiagoa izan dadin.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA. Xedapen Orokorrak.

1. Artikulua.- Xedea.

Ordenantza honek, bide publikoan jokabide zibikoa arautzea du xede, eta baita bide publiko horren garbiketa eta okupazioa ere, bertan egiten diren erabilera desberdinei loturik:

- Bide publikoaren erabilera arrunta
- Bide publikoaren erabilera berezia
- Bide publikoaren erabilera pribatiboa
- Zerbitzu publikoen euskarri gisa erabiltzea
- Obra publiko eta pribatuak egiteko beharrezko erabilera.

Era berean, Ordenantza honek, eraikuntzarako Udal Ordenantzen erregulazio osagarria du xede, fatxada bide publikora duten higiezinaren edo eraikin publiko eta pribatuen apaingarriari dagokienean.

2. Artikulua.- Aplikazio esparrua.

Ordenantza hau Irungo udalerrin osoan aplikatuko da.

3. Artikulua.- Bide publikoaren erabilerari buruzko printzipio orokorrak.

1.- Bide publikoak, espazio publikoak, instalazioak eta haietan kokaturiko hiri altzariak hiritar guztiak erabili eta gozatzeko dira, ondasunen izaeraren arabera eta norbere askatasun printzipioak eta gainerako pertsonetako errespetua kontuan harturik.

2.-Bide publikoan egiten diren jarduerak ezin dute mugatu gainerakoek duten erabilera eskubidea, erabilera arrunt berezi edo erabilera pribatiborako lizentzia edo baimena dagoenean izan ezik.

3.- Alkatetza-Lehendakaritzari dagokio bide publikoan egiten diren erabilera eta jarduerak zehaztu eta bateratzea, eta une bakoitzean interes publikoari begira premiazkoak direnei emango zaie lehentasuna. Horrenbestez, aldi baterako debekatu edo mugatu egingo dira eragozpenak edo bateraezintasunak sortzen dituzten jarduerak.

4.- Izaera orokorreko erabilera arruntek lehentasuna izango dute beste erabileren gainetik, baina ahaleginak egingo dira azken horiek bateratu edo bideratzeko interes pribatuak mantentzeko ezinbestekoak direnean eta interes publikoari kalte handirik ekartzen ez diotenean.

4. Artikulua.- Erabilitako kontzeptuen terminologia.

Hona hemen Ordenantza honetan erabilitako kontzeptuen terminologia:

1.- BIDE PUBLIKOA.- Ordenantza honen ondorioetarako, bide publikotzat hartzen dira kaleak, plazak, zirkulazio bideak, pasealekuak, hiribideak, espaloiak, bulebarrak, parkeak eta lorategi eremuak, bideetako tunelak eta hiritarren erabilera orokorrerako erabilera publiko edo pribatuko gainerako ondasunak. Era berean, arau honen aurreikuspenak aplikatuko dira urbanizatu gabeko udalaren jabetzako eremuetan eta Udalak, Udal Erakunde Autonomoek eta haren Mendeko Erakundeek kudeaturiko beste espazio publikoak

2.- HIRI ALTZARIAK.- Izen honen barnean sartzen dira zuhaitzak, eserlekuak, paperontziak, jokoak, iturriak, farolak, seinaleak, hondakinen edukiontziak, estatuak, eskulturak, lorontziak, kioskoak, markesinak eta Udalak eta haren zerbitzuek bide publikoetan jarritako gainerako elementuak.

3.- HONDAKINAK.- Hondakin gisa hartzen da apirilaren 21eko 10/1998 Hondakinen Legearen Eranskinean jasotako kategorietan sartzen den substantzia, materia edo produktu oro, jabeak baztertu edo bota duenean edo botatzeko asmoa edo betebeharra duenean.

Etxe hondakinak, denda, bulego eta zerbitzuetako hondakinak, eta duten izaera eta osaerarengatik etxe hondakinekin bateratu daitezkeen beste hondakinak hiri hondakin gisa hartuko dira.

4.- TRESNA ARRISKUTSUAK. Ordenantza honen ondorioetarako, arriskutsuak izango dira tresna zorrotz eta mingarri guztiak eta dituzten izaera eta ezaugarriengatik hiritarren osotasun fisikoa kaltetu dezaketen guztiak, baita berez

esparru profesional edo kirol esparruetakoak diren objektuak ere, sortu ziren erabileratik kanpo zirkunstantzia berezietan eta behin-behinean eramaten direnean. Azalpen gisa, honako hauek aipatuko ditugu: mailuak, mazoak, beisboleko bateak, arte martzialetan eta kontaktu fisikoko kiroletan erabiltzen diren objektuak, kateak, metalezko barrak, pioletak eta abar.

5.- ESKALETZA.- Ordenantza honen ondorioetarako, eskaletza deituko zaio bide publikoan eskean ibiltzeari.

6.- PANFLETOAK.- Era guztietako propaganda inprimatua, kartela ez dena: foiletoak, pegatinak, triptikoak eta abar.

7.- ESTABLEZIMENTUA.- Adierazitako ondorioetarako, udal lizentziari loturiko jarduerak aurrera eramaten diren lokal guztiak izango dira establezimenduak.

8.- OBRAK.- Obratzat hartuko dira eraiste, urbanizazio, eraikuntza eta berritze lan guztiak, lur iraulketak, zangak, kanalizazioak eta antzeko beste guztiak.

9.- KARTELAK.- Izen horren barnean sartuko da higiezin publiko edo pribatuetan, zuhaitzetan edo altzari publikoetan jartzeko moduko euskarria duen propaganda guztia: paskinak, kartelak, pankartak, banderatxoak, eta abar.

10.- PINTADAK.- Pintadatzat hartuko dira eskuz edo beste edozein modutan bide publikoan, zoladuretan eta eraikinetako paretetan, edo egiturako edo hiri altzarietako edozein elementutan eginiko inskripzioak. Hemen sartzen dira altzarien kristalak edo bide publikoa marratzeko ekintza guztiak, oro har.

5. Artikulua.- Lizentziak eta baimenak.

1.- Udal obra lizentzietan eta Ordenantza honetan aurreikusitako lizentzia eta baimen guztietan fidantza bat jartzeko eskatu ahal izango da, bide publikoaren garbiketa eta apaindura publikoari loturiko betebeharrei erantzungo zaiela ziurtatzeko.

2.- Azken horiek epe jakin baterako emango dira beti, eta epe hori amaitu baino lehen baliogabetu ahal izango dira.

II. KAPITULUA. Bide publikoen izendapena eta errotulazioa.

6. Artikulua.- Bide publikoen izendapena.

Bide publikoak izen batez identifikatuko dira, bakoitzak berea izango du, eta Udalbatzaren Osoko Bilkurak onartuko ditu izen horiek.

7. Artikulua.- Bide publikoen errotulazioa eta gabonetako apaingarriak.

1.- Bide publikoen errotulazioak zerbitzu publikoaren izaera du, eta plaka, zutoin edo antzekoaren bidez egin ahal izango da. Plaka hori ageriko lekuan jarriko da, eta gutxienez bide publiko bakoitzaren sarreran eta irteeran. Plazetan, berriz, eraikin nagusian eta sarbide nagusietan jarriko da.

2.- Bide publikoen errotulazio hori higiezin pribatuen fatxadetan jarri ahal izango da, eta jabeek erraztasunak emango dituzte errotulu horiek jartzeko beharreko jarduerak aurrera eramateko.

Era berean, gabonetako apaingarriak jartzeko fatxadetan beharreko euskarriak egokitzeko erraztasunak emango dituzte higiezin jabeek.

I. TITULUA.- JOKABIDE ZIBIKOA BIDE PUBLIKOAN

I. KAPITULUA. Xedapen Orokorrak.

8. Artikulua.- Jokabide arau orokorrak bide publikoan.

1.- Hiritarrek bide eta espazio publikoak askatasun osoz erabiltzeko eskubidea dute, eta askatasun hori errespetatu egin behar zaie. Ondasun publikoen erabilerari buruzko xedapenek eta beste pertsonak eta ondasun pribatuak errespetatzeko beharrak mugatzen dute zibismoz erabili behar den eskubide hori.

Arau-haustea izango da segurtasun kolektiboa nahastea edo bide publikoetan, espazio edo establezimendu publikoetan nahasmenduak sortzea, hori arau-hauste penala ez denean.

2.- Inork ere ezin du, bide publikoan duen jokabidearengatik, gainerako pertsonen eskubideak eta ekintzarako askatasuna gutxietsi, ezin ditu orokorrean onartzen diren usteak eta bizikidetza arauak iraindu, eta ez dira jokabide exhibizionistak onartuko.

3.- Ezin da auzokoen atsedena hautsiko duen zaratarik egin, ez eta gaez iskanbiletan parte hartu, edo gaez aisiarako lokaletatik zarata handia eginez atera.

4.- Ibilgailu motordunek, eta bereziki ziklomotorrek eta motozikletek, eragindako zaratei dagokienean, Udal honek onarturiko Zarata eta Bibrazioen Ordenantzak xedaturikoa beteko da, alor horretan ezar daitezkeen arau-hauste eta santzioak barne.

5.- Hiri hondakinak bota eta tratatzeari dagokionean, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen Hiri Hondakinak Kudeatzeko Ordenantza Arau-emaileak xedaturikoa beteko da, alor horretan ezar daitezkeen arau-hauste eta santzioak barne.

6.- Hiritarrek inolaz ere ez dute indarkeria edo bazterketa dakarren, edo indarkeria fisikoa edo morala eragiten duen jarduerarik egingo bide publikoan.

9. Artikulua.- Elkartasuna bide publikoan.

1.- Udalak hiritarren jokabide solidarioa sustatuko du bide publikoan, bidean ibili edo orientatzeko laguntza behar duten pertsonei, eta istripua izan duten edo arriskuan dauden pertsonei laguntzeko. Era berean, igarotzerakoan edo hiri altzariak erabiltzerakoan behar handiena duten pertsonei lehentasuna emateko ohitura bultzatuko da, eta baita beste elkartasun eta hezkuntza jokaera batzuk ere.

2.-Haurrak edo pertsona ezinduak galduta, edo fisikoki nahiz psikikoki gaizki dauden pertsonak aurkitzen dituzten pertsona guztiek agintaritzaren agenteei jakinaraziko diete, eta horiek arduratuko dira pertsona horiek babesteaz eta haien tutela eta ardura dutenengana itzultzeaz.

10. artikulua.- Ondasun publikoen erabilera.

Duten izaeraren arabera erabili behar dira ondasun publikoak, egoki eta behar bezala beti ere, eta gainerako hiritarrek ere ondasun horiek erabiltzeko duten eskubidea errespetatuz.

11. Artikulua.- Agintaritzaren agenteen eta udal zerbitzuen jokabidea.

1.- Agintaritzaren agenteek eta udal zerbitzuek uneoro zuzen eta gizalegez tratatuko dituzte hiritarrak, eta behar dutenei laguntza eman eta babestuko dituzte. Beren interbentzioetan beharreko informazio guztia emango dute beren ekintzen arrazoi eta helburuen inguruan.

2.- Agintaritzaren agenteek egokitzen hartzen dituzten aginduak eta jarraibideak eman ahal izango dizkiete hiritarrei, Ordenantza honetan jasotako zehaztapenak beteko direla ziurtatzeko.

Arau-haustea izango da agintaritzaren edo bere agenteen aginduek ez betetzea, agindu horiek Ordenantza honetan edo indarrean dagoen beste legeria batean xedaturikoa zuzen aplikatuta ematen direnean, eta arau-hauste penala ez denean.

3.- Kasu larriak direnean eta 1. atalaren arabera jardun ondoren, pertsonen gainean agintea erabili behar bada, hertsiki ezinbestekoak diren indar-ekintzak soilik burutuko dira, ukituriko pertsonen duintasuna erabat errespetatuz.

4.- Fabrika, lokal edo establezimenduen titularrek edo arduradunek, leku horietan sartzeko erraztasunak emango dizkiete udal ikuskapen zerbitzuei, Ordenantza honetan edo udal eskumeneko beste araudietan xedaturikoaren araberrako ikuskapen edo kontrolak egin ahal izateko.

II. KAPITULUA. Jokabide zibikoa.

12. Artikulua.- Hiri altzariak eta espazio publikoak babestea.

1.- Hirian dauden hiri altzariak egoki eta behar bezala erabiltzeko obligazioa dute hiritar guztiek, altzari horiek errespetatu egin behar dira, haien kontserbazio eta erabilera arrunterako hondamenik sortu gabe.

2.- Debekatuta daude hiri altzariak eta espazio publikoak zikindu eta hondatzen dituzten edo honda ditzaketen ekintzak burutzea, eta bereziki, honako ekintza hauek:

a) Eserlekuak beren erabilera naturalaren aurka erabiltzea, ezin dira zapaldu, ezin dira dauden lekuetatik kendu, ez hautsi, ez zikindu eta, oro har, ezin da haien erabilera kaltetu edo kontserbazioa hondatuko duen ezer egin.

b) Debekatuta dago jokorako tresnak modu txarrean eta kalte egin edo hausteko moduan erabiltzea, haurrentzako jokoak ezin dituzte helduek edo adin txikikoak izan arren jokoan jartzen duen adina gainditzen dutenek erabili. Jokoa erabiltzeko adin egokia azaltzen duen plaka izango du joko horietako bakoitzak.

c) Debekatuta dago zaborrak, pipak, txikleak edo paperak zeregin horretarako dauden paperontzietatik kanpo botatzea.

d) Debekatuta dago paperontziak irauli edo beren tokietatik ateratzea, eta baita haien itxura eta osotasuna honda dezaketen beste ekintza guztiak ere.

e) Debekatuta dago hiri hondakinen paperontzi eta edukiontzietan tresna edo objektu arriskutsuak botatzea.

Ondorio horietarako, tresna edo objektu arriskutsuak izango dira pertsoneri kalte egin diezaieketen guztiak, hauxe da, animaliak eta animalien hondakinak, xiringak eta substantzia estupefazienteak kontsumitzeko tresnak, osasun arretan erabilitako materialak gaixotasunak kutsatu edo zabaldu ditzaketenean, eta era guztietako droga toxikoak, estupefazienteak eta produktu kimiko, erradiaktibo eta pirotekniko guztiak eta lehertu daitezkeen edo sua piztu dezaketen guztiak.

f) Debekatuta dago iturri publikoetako tutuak, kanilak eta gainerako elementuak manipulatzeko haien funtzionamendu normaletik kanpo.

Dekorazio iturrietan debekatuta dago zikintzea, eta bertako ura garbitu, bainatu edo barruan sartzeko erabiltzea, eta debekatuta dago iturri horietara edozein detergente, koloragarri edo produktu kimiko botatzea.

g) Debekatuta dago hirian dauden zuhaitz, farola, estatua, seinale eta gainerako apaingarriak kaltetuko dituen edozein ekintza edo manipulazio, eta baita elementu horiek hondatzen dituzten ekintzak ere.

h) Debekatuta dago sua eta ekintza piroteknikoak egitea udalaren eta alor horretan eskumena duten administrazioen derrigorrezko baimenik gabe. San Joan bezperako suak eta antzekoak egiteko, udalaren baimena lortu beharko da aurrez jakinarazita.

Hirigunearen barnean barbakoien erabilera mugatua egongo da arriskugarritasunagatik edo gainerako hiritarrei edo dauden berariazko araei eragozpenak sortzeagatik.

i) Debekatuta dago animaliei bide publikoko gizakien kontsumorako iturrietatik zuzenean edaten uztea.

j) Debekatuta dago iturri edo urmaeletan edo bide publikoan usain txarrak eta eragozpenak sortzen dituzten substantziak botatzea.

13. Artikulua.- Berariazko debekuak.

1.- Debekatuta dago bide publikoan kirol edo joko jarduerak burutzea, pertsona edo ondasunei kalteak edo hiritarrei eragozpenak eragiteko moduko objektuak edo tresnak erabiltzen badira, horretarako baimendutako leku eta eremuetan eta baimendutako ordutegietan izan ezik. Plazetan jokoan edo jolasean ibili daitekeen lekuak zehaztuko dira, horrelakorik egin badaiteke bederen.

Azalpen gisa, esango genuke, debekatuta dagoela kale eta plazetan pertsoneri eta jabetza pribatuei arrisku edo kalte nabarmenak eragin diezazkieketen baloi, disko hegalaria, boomerang eta abarrekin jolastea.

2.- Debe katuta dago bide publikoan petardoak edo bengalak erabiltzea, eta debe katuta dago edozein moldetako objektuak jaurtikitzen dituzten tresna edo gailuak erabiltzea, esate baterako, arkuak, zerbatanak, tiragomak eta bolak botatzen dituzten pistolak.

3.- Debe katuta dago oinezkoentzako plazetan eta espaloietan motozikleta eta ziklomotorretan ibiltzea, Ibilgailuen eta Oinezkoan Zirkulaziorako Ordenantzak zehaztutakoaren arabera.

4.- Debe katuta dago fatxadetatik aurrera ateratzen diren lorontziak eta abar jartzea, eraikineko berezko elementuek behar bezala eusten ez dietenean.

5.- Auzokoen atsedena errespetatzeko eta etxean bizikidetzara arrunta nahasiko duen zaratarik ez egiteko betebeharra dute hiritar guztiek.

Etxebizitzen artean auzokoen bizikidetzara-zaratek sortzen dituzten eragozpenek Zeharkako Jabetzaren Legean dute beren erregulazio juridikoa, baina alderdi arruntago batzuk Ordenantza honen aplikazio esparruan sartzen dira modu orokorrean, kasu horietan sorturiko kontaminazio akustikoa onartzeko moduko mugen barnean egon dadin bertako erabileren arabera.

Arrazoi horregatik, honako prebentzio hauek zehazten dira, 22:00etatik 8:00ak arteko ordutegiari eta harrera puntuan 30 dBA-ko (LpA_{fmax}) soinu mugari dagozkionak guztiak ere:

a) Etxe partikularren barnean eta eskaileretan, patioetan eta, oro har, etxebizitzetako erabilera komunitarioko espazioetan ezin da ozenezi abestu edo hitz egin gaueko 0,00etatik goizeko 7etara bitarte.

b) Ezin dira ateak eta leihoak zalapartan itxi, bereziki arestian aipaturiko ordutegi horretan.

c) Etxe barruan ezin da beste edozein modutako zaratarik egin, bereziki gaueko 22:00etatik goizeko 8:00ak arteko ordutegian, etxean konponketa material edo mekanikoak, altzari edo etxetresna elektrikoak aldaketak egin behar direnean edo beste edozein arrazoiengatik. Nolanahi ere, horiek ezin izango dituzte 30 dB-ak gainditu harrera puntuan.

d) Auzokoez ezin izango dute, gaueko 22:00etatik goizeko 7:00ak arte, patio, terraza, galeria, balkoi eta beste espazio itxi eta irekietan, beren soinu, oihu edo kantuekin aldamenekoen atsedena hauts dezakeen animaliarik utzi.

Edozein ordutan beren jabe edo arduradunek erretiratu egin beharko dituzte eraikineko gainerako biztanleei edo ondoko eraikinetakoei, modu nabarmenean, eragozpenak sortzen dizkietenean.

14. Artikulua.- Parke eta lorategi publikoak.

1.- Hiriko parke eta lorategi publikoak errespetatzeko obligazioa dute hiritarrek.

2.- Parke, lorategi eta lorontzietako eta bide publikoan aldatutako landare espezie desberdinak ongi kontserbatu eta mantendu ahal izateko, erabat debekatuta daude honako ekintza hauek:

- a) Landareak lapurtzea.
- b) Soropila eta landareak hondatzea edo bertan kanpatzea.
- c) Zuhaitzak bota, inausi eta haustea edo haietara igotzea.
- d) Zuhaitzen azaletan gauzak idatzi edo margotzea, punta zorrotzak sartzea, zuhaitz horiei eskaierak edo tresnak eta aldamioren euskarriak lotzea eta kartelak jartzea.
- e) Aldi baterako bada ere, obra materialak zuhaitzetan pilatzea eta haietan edozein produktu toxiko isurtzea.
- f) Berdeguneetan, haiek hondatzeko edo duten estetika eta erabilera ona kaltetzeko moduko zaborrak, hondakinak, harriak, legarra edo beste edozein produktu botatzea.
- g) Soropil eta lorategietan gorotzak uztea.
- h) Parke eta lorategietan sua edo suteak piztea.
- i) Motor edo ziklomotorretan ibiltzea. Bizikletak ibili ahal izango dira baldin eta bertan dagoen jende kopuruak horretarako aukerarik ematen badu eta eragozpenik sortzen ez bada.
- j) Ibilgailuak aparkatzea.

3.- Era berean, ordutegi arautua duten parkeetan egotea debekatuta dago, ixteko ordutegi horretatik kanpo.

15. Artikulua.- Droga eta edari alkoholdunen kontsumoa. Arma eta tresna arriskutsuak.

1.- Drogen kontsumoan, eta arma eta tresna arriskutsuak eraman eta erabiltzean, alor horretan indarrean dagoen araudian jasotako arauak beteko dira.

2.- Udaltzaingoak berehala konfiskatuko ditu drogak, substantzia estupefazianteak, substantzia psicotropikoak eta arma eta tresna arriskutsuak.

3.- Bide publikoan edari alkoholdunak kontsumitzeari dagokionean, debekatuta dago:

a) Bide publikoan edari alkoholdunak saldu eta kontsumitzea, terraza edo kanpoko mahaietan, feria egunetan, herriko jaietan, edo ekitaldi berezietan izan ezik, baina Nolanahi ere, dagokion udal lizentzia beharko da.

b) Ostalaritza establezimenduetan edariak saldu edo hornitzea kanpoan (bide publikoan) kontsumitzeko, terrazetan edo beharreko udal baimena duten beste instalazio batzuetan izan ezik.

c) 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunak saldu, hornitu eta kontsumitzea, bai salmenta lekuetan bai kontsumo lekuetan.

Era berean, adin txikikoekiko edari alkoholdunen horniduraren erantzuleak izango dira, adin nagusikoak izanik eta establezimendu eta komertzioetako arduradunen kontrolatik ihes egiteko, edari alkoholdunak erosi eta adin txikikoei ematen dizkieten hirugarren pertsona guztiak.

Segurtasun arrazoiengatik, kontzertuak edo antzeko ekitaldiak bezala jendetza handiak biltzen dituzten ikuskizunetan, nahiz eta udalaren baimena izan edari alkoholdunak saltzeko aukera barne, edari horiek plastikozko edalontzietan emango dira, eta inola ere ez dira onartuko kristal eta beirazko ontziak, ez eta lata edo antzekoak ere.

4.- Tabakoaren kontsumoari dagokionean, erretzea debekatuta dago udal areto guztietan, aire zabalean daudenetan edo horretarako egokitutako lekuetan izan ezik. Leku horiek ez badira egokitzen, mantendu egingo da areto horietan erretzeko debekua.

16. Artikulua.- Eskaletza.

1.- Debekatuta dago adin txikikoak udalerraren barruan eskean ibiltzea, eta adin txikikoen babesaren alorrean indarrean dagoen legeriak xedaturikoa beteko da beti ere.

2.- Debekatuta dago dirua edo limosna eskatzea bortxaz edo beldurra sorraraziz hitzez edo egitez. Era berean, debekatuta dago diruaren ordezkari objektuak edo zerbitzuak eskaintzea bortxaz eta beldurra edo eragozpenak sortuz. Nolanahi ere, Udaltzaingoak ekintza horien berri eman ahal izango dio eskumena duen Auzitegiari.

3.- Agintaritzaren Agenteak, gizarte eta udal zerbitzuak eta beste erakunde batzuen zerbitzuak daudela jakinaraziko die beharra duten pertsonari, behar dituzten sorospena eta laguntza eska ditzaten.

4.- Gizarte Ongizateko udal zerbitzuak, ageri duten egoera ikusirik, arreta eskainiko die gaua pasatzeko lekurik ez duten pertsonari, bereziki neguan.

17. Artikulua.- Salmenta ibiltaria.

1.- Edozein produkturen salmenta ibiltaria debekatua dago bide publikoan edo establezimenduetan, ordenantza honetan espres araututako kasuetan izan ezik, eta gainera beharreko udal baimena eskuratu beharko dute horiek ere.

Salmenta ibiltaria izango da merkatariek merkataritza establezimendu iraunkor batetik kanpo, espazio libre eta berdeguneetan edo bide publikoan, egiten dutena leku eta egun desberdinetan.

Salmenta ibiltaria debekatzeko printzipio orokorraren salbuespen gisa, eta Ordenantza honetan jasotako salbuespenei kalterik egin gabe, Udalak salmenta ibiltariaren modalitate hori baimendu ahal izango du gobernuz kanpoko instituzioekin sinaturiko hitzarmenen bidez, indarrean dagoen legeriaren arabera osatu ondoren, gizarte intereseko helburuak dituztenean, hainbat alor edo produkturen inguruan arauak zehazten dituzten debekuak kontuan harturik beti ere.

Produktu batzuen salmenta ibiltarirako baimenik ezin izango da eman dagokien araudiak horretarako debekua ezartzen badu.

2.- Salmenta ibiltaria desmuntatzeko moduko postu edo instalazioetan egingo da, eta dagokien baimenak zehatz adierazitako lekuan edo lekuetan soilik jarri ahal izango dira postu horiek. Gehienez 2 x 1 metro izango dituzte, zirkunstantzia bereziengatik tamaina handiagoa baimendu daitekeenean izan ezik.

Salmenta ibiltarirako postuak ezin izango dira eraikinen, eta merkataritza eta industria establezimenduen sarreretan edo sarrera horiek edo oinezkoen joan-etorriak eragozten dituzten lekuetan jarri, ez eta erakusleihoen edo erakusketen aurrean, horien ikusmena eragozten dutenean.

3.- Gure hirian dugun tradizioari jarraiki, salbuespen gisa eta aldi baterako, udalak beharreko baimena eman ondoren, Udalak zehaztutako leku eta kopuruan, eta Udalak zehaztutako baldintzetan, honako hauen salmenta baimendu ahal izango da:

- gaztainak neguak; sardina erreak eta edariak Euskal Jira egunean; eta txurroak, txistorra eta ogitartekoak San Pedro eta San Martzial jaietan.
- loreen salmenta Santu Guztien eguna dela eta.
- pinuak eta antzekoak eguberrietan.
- baserriko produktuak.
- liburuak Liburuaren Eguna dela eta.
- kultur eta gastronomia izaerako edo gizarte intereseko azoketan egiten diren artisau-lanak eta bertako gastronomia produktuak.

- beste hainbat produktu herriko jaietan, auzoetako jaietan eta garrantzi berezia duten ekitaldietan.

II. TITULUA.- BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA

I. KAPITULUA.- Bide publikoaren garbiketa erabilera arruntagatik.

I. Atala.- Bide publikoaren garbiketa hiritarren erabilera arrunt eta orokorraren ondorioz.

18. Artikulua.- Udalaren betebeharra.

Hiriko espazio publikoak garbi eta osasungarri mantentzeko erantzukizuna dute udal zerbitzuek. Zeregin horretarako, Udalak, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen bidez, dagokion zerbitzu publikoa emango du beharreko intentsitatez, eta dagozkion erreparo eta zaintza lanak egingo ditu.

19. Artikulua.- Hiritarren betebeharrak eta laguntzak.

1.- Hiritar guztiek dute, oro har, hiria eta bereziki, espazio publikoak garbi mantentzeko betebeharra dute.

2.- Elurra eginez gero, hiriko finen jabeek, publikoak nahiz pribatuak izan, espaloietatik elurra eta izotza kentzen lagunduko dute, ura erabili gabe, fatxadari dagokion luzeran eta 1,50 metroko zabalera gutxienez, espaloiarene zabalera txikiagoa denean izan ezik; elurra espaloiarene ertzean utziko dute, zuhaitzak ukitu gabe eta hustubideei edo estoldei trabarik egin gabe.

3.- Udal zerbitzuek eta Udaltzainek, garbiketaren alorrean hiritarrek dituzten obligazioak betetzen dituztela ziurtatuko dute uneoro, eginiko okerra berehala konpontzeko eskatuz, eta horrez gainera, dagokion salaketa egin ahal izango dute.

20. Artikulua.- Berariazko debekuak.

1.- Debekatuta dago bide publikoa zikin dezakeen edozein jarduera egitea, esate baterako:

- Bide publikoan edo beste edozein lekutan, hondakinak bide edo ubide publikora isurtzen badira, ibilgailuak garbitu edo konpontzea.
- Bide publikoan kaka eta pixa egitea eta listua botatzea.

- Balkoi, terraza edo leihoetatik edozein eratako hondakinak botatzea bide publikora, espazio pribatuetara edo espazio komunitarioetara.

2.- Panfletoak botatzen badira, banaketa horrek ukituriko hiri espazioa garbitzeaz arduratuko dira udal zerbitzuak, eta horren erantzuleei leporatuko zaie emaniko zerbitzu berezien kostua, dagozkion isunak jartzeko aukerari kalterik egin gabe.

3.- Fatxadetako lorontziak edo landareak gaueko 22:00etatik goizeko 8:00ak arte soilik ureztatu ahal izango dira. Kalte eta eragozpenik ez sortzeko moduan egingo dira lan horiek.

Bide publikoan hondakinak manipulatu edo botatzeari buruzko beste debekuei, eta animalia hilak abandonatzeari dagokienean, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatean Hiri hondakinen Kudeaketa Arautzen duen Ordenantzak xedaturikoa beteko da (22, 25 eta 32 art.).

Arropa lehorra edo bustia zabaltzeari dagokionean, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak xedaturikoa beteko da (3.6.4 art.).

21. Artikulua.- Hondakinak botatzea.

1.- Hondakinak honako modu honetan aterako dira.

Zaborra (poltsa itxian), papera-kartoia, ontziak eta beira bakoitza bere edukiontzian eta inguruak zikindu gabe. Altzariak eta tresneria edukiontzia-aren ondoan, haren kontra jarri gabe.

Komertzioetako papera-kartoia, tolestua eta lotua, dagokion edukiontzia-aren ondoan.

2.- Debekatuta dago zabor poltsetan eta bide publikoan dauden edukiontzietan jarritako hondakinak miatzea eta ateratzea, obra hondakinak jasotzeko edukiontzia-ak barne.

22. Artikulua.- Paperontzien erabilera.

1.- Bolumen txikiko hondakin solidoak, esate baterako, zigarro-mutur itzaliak, azalak, txikleak, paperak, poltsak, bildukiak eta antzekoak, paperontzietan bota behar dira, material birziklagarriak direnean izan ezik, kasu horretan bide publikoan jarritako gaikako bilketarako edukiontzia-ak erabili behar baitira.

Zakar-poltsak ez dira paperontzietan sartuko.

2.- Debe katuta dago hondakin solido piztuak eta beste edozein materia piztu paperontzietan uztea.

II. Atala.- Merkataritza eta industri jardueri loturiko garbiketa.

23. Artikulua.- Inguruko eremuaren garbiketa.

Merkataritza edo industri jarduera batek bere inguruetan, edo baimendutako espazioan terrazen kasuan, zikinkeria sortu ohi badu, establezimenduko titularrak garbi eduki beharko du ukituriko bide publikoaren zatia, dagozkien lizentziei aplikatu beharreko erregimenetik etor daitezkeen neurri zuzentzaile eta gainerako betebeharrei kalterik egin gabe.

24. Artikulua.- Establezimenduak.

Erakusleiho, establezimendu, atari, salmenta puntu eta antzekoen garbiketa arreta handiz egingo da bide publikoa ez zikintzeko, eta bertan dabiltzanei eragozpenik ez sortzeko orduetan egingo da.

Garbiketa horretatik etorritako hondakinak ezin izango dira bide publikora isuri edo bota, eta dagokien edukiontzian botako dira. Likidoak badira, estolderian hurbilen dagoen hustubidera isuriko dira, baldin eta hondakin horiek azido, lixiba, garbikari kontzentratu eta ur inguru hartzailearen gaitasun biologikoa eta ezaugarriak alda ditzaketen beste produkturik ez badute.

25. Artikulua.- Olanak eta pertsianak.

Beheko solairuko lokaletako olanak eta pertsianak kontserbazio eta garbiketa egoera onean mantenduko dira, eta berriro egingo dira kanpoko itxurak eskatzen duenean.

26. Artikulua.- Errotuluak, plakak eta gainerako bereizgarriak.

Edozein errotulu, plaka edo bereizgarri bide publiko aldera jartzeko, beharreko lizentzia lortu beharko da. Horiek garbi edukiko dira eta hondatuak aldatu egingo dira.

Norabideen seinaleei dagokienean (trafikokoak, monumentuenak eta intereseko lekuenak, udal zerbitzuenak eta abar alde batera utzita), izaera publikoa edo erabilera publikoa duten zerbitzuei dagozkienak soilik jarri ahal izango dira (osasun establezimenduak, hotelak, parkingak, posta, eta abar),

udalaren baimena lortu ondoren eta hartan zehazten diren kopuruak eta irizpideak kontuan harturik.

27. Artikulua.- Pankartak, kartelak, banderatzokak eta itsasgarriak.

Debekatuta dago horrelakoak bide publikoan jartzea egitura elementu, galtzada, espaloi, hiri altzari, horma eta paretetan, aurrez udal baimena lortu gabe. Horrez gainera, jabearen baimena ere eduki beharko da beharbada.

28. Artikulua.- Isurtzeak.

Generoa soltean, edo edozein materia ontziratu gabe garraiatzen duten ibilgailuak bide publikora isurketarik ez egiteko moduan kargatu eta ekipatuko dira.

29. Artikulua.- Karga eta deskarga.

1.- Edozein ibilgailuren karga eta deskargak egiterakoan, zikindutako espaloi eta galtzadak berehala garbituko dira lan horiek amaitu bezain laster.

2.- Garbiketa horiek egiteko obligazioa dute (28 eta 29 art.), ibilgailuen jabeek eta, subsidiarioki, karga edo deskarga egin den establezimendu edo finkaren titularrek.

Arau orokor gisa, titularrek ez badute egiten, udal zerbitzuek egingo dute beharreko garbiketa, baina gastuak besteek ordainduko dituzte.

III. Atala.- Animaliak eraman edo edukitzeari loturiko garbiketa.

30. Artikulua.- Animaliekiko tratua. Gorotzak.

1.- Hiritarrek behar bezala zainduko dituzte etxe animaliak, eta bereziki, debekatuta dago animalia horiek kalean abandonatzea.

2.- Debekatuta dago edozein animaliak parke, pasealeku, lorategi edo bide publikoko beste edozein lekutan kaka egitea. Animalia horiek daramatzaten pertsonak ez diete utziko leku horietan kaka egiten.

3.- Ezin izan bada gorotzak bide publikoan egitea ekidin, animalia jabeak edo animalia hori daraman pertsonak berehala jaso beharko ditu. Arau hori ez bada betetzen, animalia jabea izango da erantzulea eta, subsidiarioki, une

horretan daraman pertsona. Bietako bat ere ez bada azaltzen, dagokion udal zerbitzuak erretiratu egingo du animalia.

31. Artikulua.- Animaliak eramatea.

1.- Animaliak ezin izango dira lorategietan eta parterreetan ibili, espres baimendutako parkeetan ibili ahal izango dira behar bezala kontrolatuak.

2.- Indarrean dagoen Animaliak Babestu eta Edukitzeko Udal Ordenantza beteko da uneoro.

II. KAPITULUA.- Bide publikoaren garbiketa erabilera arrunt bereziaren, erabilera pribatiboaren eta ekitaldi publikoen ondorioz.

32. Artikulua.- Erabilera berezi edo pribatiboak ukituriko eremuaren garbiketa.

1.- Erabilera arrunt berezi eta pribatiboaren ondorioz bide publikoa zikintzen bada, erabilera horien baimena duten edo esleipendunak diren pertsona fisiko edo juridikoen erantzukizuna izango da. Sortzen dituzten hondakinak bota edo edukitzeko ontzi homologatuak jartzeko eskatu ahal izango die Udalak, eta ontzi horiek ere garbitu egin beharko dituzte.

2.- Terraza eta mahaien garbiketari dagokionean, Bide Publikoan jartzen diren Terraza eta Mahaien Udal Ordenantzak zehazturikoa beteko da (10. art.). Nolanahi ere, garbiketa hori titularrek egin beharko dute ordubeteko epean, establezimendua ixten den unetik aurrera kontatuta. Dena dela, egun osoan zehar garbi eduki beharko dira, garbiketa eta higiene baldintza egokietan, eta horretarako, erratza pasako da eta garbiketa lanak egingo dira aldian behin.

3.- Merkatu txikiko postuen garbiketari dagokionean, Merkatu Txikia arautzen duen Udal Ordenantzak xedaturikoa beteko da (19 eta 20 art.).

33. Artikulua.- Ekitaldi publikoak egitea.

1.- Jabetza publikoko espazioetan ekitaldi bat antolatzen duten antolatzaile pribatuak izango dira ospakizun horretatik etorritako zikinkeria erantzuleak.

2.- Hiriko garbitasunaren ondorioetarako, ekitaldi publikoen lekua, ibilbidea eta ordutegia Udalarik jakinarazteko obligazioa dute antolatzaileek. Udalak fidantza bat jartzeko eskatu ahal izango die eragin ditzaketen garbiketa lan

berezien arabera. Ukituriko espazio librea garbiketa baldintza egokietan baldin badago, itzuli egingo da fidantza hori. Bestela, hartatik kenduko da egin beharreko garbiketa lan berezi horien kostua.

3.- Jende asko biltzen diren ekitaldi publikoetan, eta bertan tabernak, txosnak edo antzekoak jartzen direnean leku horietan elikagaiak edo/eta edariak kontsumitzeko, publikoari irekitako komunak izango dituzte bildutakoek, derrigorrezko baimenean zehaztutako kopuruan eta baldintzetan. Horrelakorik ezean, antolatzaileek komun eramangarri homologatuak jarriko dituzte, udal zerbitzu teknikoek zehaztutako kopuruan eta kokalekuetan.

4.- Era berean, bide publikoan era horretako behin-behineko establezimenduak ezartzen direnean, aplikatu beharreko higiene-osasun baldintzak betetzeaz gainera, ur hartuneak eta hustubideak jarriko dira saneamendu sarera, eta beharreko neurriak hartuko dira hondakinak ohiko edukiontzietan uzteko gaika bilduta, gero birziklatu ahal izateko, eta zeregin horretarako espres jarritakoetan.

34. Artikulua.- Jaialdiak animaliekin.

Ekintza edo jaialdietan animaliak erabiltzen badira, sortzen duten zikinkeria garbitu beharko du antolatzaileak, ekitaldia bukatu eta animaliak erretiratu bezain laster.

35. Artikulua.- Kanpatzea.

1.- Ezin izango da kanpatu, eta kanpin dendak edo horretarako egokituriko ibilgailuak jarri beharreko baimenik ez duten eremu publiko edo pribatuetan. Ezin izango da bide publikoan janaria prestatu edo aulkiak eta mahaiak jarri, horrelakorik eskatzen duen jardueretarako izan ezik, eta horretarako udal baimena lortu behar da derrigorrez.

Eremu Urbanizaezinean Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 27ko 178/89 dekretuak zehaztutakoa beteko da.

2.- Agintaritzaren Agenteez bide publikoa okupatzen duten kanpin dendek, ibilgailuen edo beste edozein eratako materialen jabe edo erabiltzaileei jokabide hori zuzentzeko eskatuko diete, eta salaketa ere egin ahal izango dute. Ezezkoa eman ezker edo jabeak edo erabiltzaileak ezin badira aurkitu, Agintaritzaren Agenteez beharreko bideak erabili ahal izango dituzte elementu horiek berehala erretiratzeko, eta sortutako gastuak jabeek ordainduko dituzte.

Arau orokor gisa, titularrek ez badute egiten, udal zerbitzuek egingo dute beharreko garbiketa, baina kostuak jabeek ordainduko dituzte.

III. KAPITULUA.- Egiten diren obrei loturiko bide publikoaren garbiketa.

36. Artikulua.- Neurriak hartzea.

1.- Egiten diren jarduera eta obra guztiek, bide publikoa zikindu ez dadin beharreko neurriak hartzera behartzen dute titularra, derrigorrezko lizentzietatik datozen baldintzei kalterik egin gabe. Era berean, obra horrek ukituriko eremua behar adina aldiz garbitzeko, eta sorturiko hondar materialak erretiratzeko obligazioa izango du titularrak.

2.- Udalak beharreko garbiketa lanak egiteko eskatu ahal izango dio obraren arduradunari.

3.- Eraikuntza, berritze edo eraiste lanak direnean, obra lizentziaren titularra izango da obra horiek ukituriko bide publikoaren garbiketaren erantzulea.

37. Artikulua.- Obraren babesa.

1.- Zikinkeriarik ez biltzeko, bide publikoa ukitzen duten edo uki dezaketen lanak edo obrak egiten dituzten pertsonak obra hori babestu egin beharko dute inguruan elementu egokiak jarrita, obrako lurak eta soberako materialak baimendutako eremutik edo obra mugatzen duen perimetrotik kanpora isuri eta zabaldu ez daitezzen.

2.- Debekatuta dago obraren perimetroaren barnean ez dagoen bide publikoan lurak, hondarrak, legarrak eta gainerako materialak biltzea, eta baita eusteko eta induskatzeko elementu mekanikoak eta gainerako tresna lagungarriak pilatzea ere, dagokion obra lizentzian udalaren baimen espresa jasotzen ez bada, eta espazio hori beti garbi edukiko da.

3.- Lanegun bakoitza amaitzean, bide publikoan eginiko lan eremuak, zangak, kanalizazioak eta abar, garbi eta babestuak utziko dira eta beharreko seinaleak jarriko zaizkie istripurik gerta ez dadin, gauerako balizaje elementuak barne.

38. Artikulua.- Garbiketa plataforma.

1.- Obraren esparruan plataforma bat egokituko da, bertan, bide publikora atera aurretik, ibilgailuen gurpilak eta galtzada zikin dezaketen gainerako elementuak garbitu ahal izateko.

2.- Prebentzio hori ez bada betetzen, dagokion santzioa jartzeaz gainera, obrako ibilgailu horiei bide publikora ateratzea debekatu egingo die Udaltzaingoa.

39. Artikulua.- Masaderak.

1.- Debekatuta dago masadera-ibilgailuan hormigoia garraiatzea, hormigoia hori bide publikora ez isurtzeko beharreko gailuaren bidez ez bazaio deskargatzea ahoaz.

2.- Debekatuta dago masaderak bide publikoan eta horretarako egokia ez den beste edozein lekutan garbitzea.

3.- Aurreko bi atal horiek ez badira betetzen, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzuleak, eta erantzule subsidiarioa, berriz, obraren sustatzailea edo zerbitzua ematen dioten jardueraren titularra. Isurtzen den hormigoia eta ukituriko bide publikoa garbitzeko obligazioa dute. Horrez gainera, dagozkien santzioak jarri ahal izango zaizkie.

40. Artikulua.- Lurren eta obra-hondakinen garraioa.

1.- Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzeko ibilgailuek beharreko baldintzak beteko dituzte bide publikora isurketarik egin ez dezaten.

2.- Istripu, iraulketa edo beste edozein gorabeheraren ondorioz karga bide publikora erori edo isurtzen bada, eta bideko segurtasunari begira arriskuak sorbaditzake, gidariak ahalik eta azkarren eman beharko diote horren berri Udaltzaingoiari, eta horrekin batean, eroritakoa bildu eta arrisku eremutik kanpo eramaten hasiko dira, garbiketa zerbitzuek eman diezaieketen laguntzaren zain. Nolanahi ere, gorabehera horiek sorturiko gastuak ibilgailuen jabeek edo gidariak ordainduko dituzte.

3.- Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzen dituztenek, ukituriko bide-zatia berehala garbitzeko obligazioa dute, karga, deskarga eta garraio lanen ondorioz bide publikoa zikintzen bada.

4.- Era berean, edozein unetan kendu behar dituzte, eta Udal Agintariak eskatzen duten guztietan, baimendu gabeko lekuetan isuritako lurrak eta obra-hondakinak. Horrez gainera, dagozkien santzioak jarri ahal izango zaizkie.

41. Artikulua.- Obra-edukiontzia.

Obra-educiontziei dagokien guztian, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatean Hiri Hondakinak Kudeatzeko Ordenantza Arau-emaileak xedaturikoa beteko da (39. eta 41. art.).

III. TITULUA.- HIGIEZINEN KANPOALDEKO GARBIKETA

I. KAPITULUA.- Eraikin publiko eta pribatuen kanpoaldeko garbiketa eta hiri paisaiarekiko errespetua.

42. Artikulua.- Higiezinaren kanpoaldeko elementu eta atalen garbiketa eta mantenua.

1.- Higiezinaren jabeek eta establezimenduen titularrek higiezin horiek beharrezko garbiketa publikoaren baldintzetan mantentzeko obligazioa dute. Garbiketa, berritze edo iztukadura lanak egin behar dituzte –fatxaden, errotiluen, arteko hormen, sarreren, sartzeko eskaileren, lorategien eta, oro har, higiezinak dituen eta bide publikotik ikusten diren arkitektura elementu eta material guztien izaeraren arabera-, zikinak daudenean edo Udalak agintzen duenean, udal zerbitzuek aurrez txostena egin ondoren.

2.- Burdin sareak, balkoien barandak, olanen burdineria eta gainerako metalezko elementuak herdoilik gabe edukiko dira eta behar denean margotu eta konpondu egingo dira. Udalak horretarako agindua eman dezake, udal zerbitzuek aurrez txostena egin ondoren.

43. Artikulua .- Publizitatea.

1.- Kanpoko publizitatea, edozein euskarritan eta edozein direla ere dituen ezaugarriak eta helburuak, bereziki helburu horretarako egokituriko lekuetan soilik instalatu ahal izango da, eta aplikatu beharrezko berariazko araudia bete behar da beti ere.

2.- Horrenbestez, debekatuta dago, udalaren baimen espresik ez bada, eraikin publiko edo pribatuen fatxada, karrerape, markesina, hiri altzari, zuhaitz, horma, tunel eta lurpeko igarobideetan eta, oro har, bereziki horretarako diren lekuetatik kanpo edozein eratako iragarkiak jartzea. Era berean, debekatuta dago leku horietan guztietan edozein izaera politikoko edo beste edozein erako pegatina, kartel, paskin, pankarta edo banderatzu jartzea. Hori guztia Ordenantza honen 44.1 artikuluan aurreikusitako salbuespenak kontuan harturik.

44. Artikulua.- Kartelak eta banderatxoak.

1.- Bide publikoan kartelak eta banderatxoak jartzeko baimen espresa eman ahal izango du Udalak honako kasu hauetan:

- a) Hirian garrantzi handiko kultur, arte edo kirol ekitaldiak egiten direnean.
- b) Hirirako interesa duten kontzertu, ekitaldi edo erakusketak indartu eta nabarmentzen laguntzen dutenean.
- c) Hauteskunde kanpainenetan, behar bezala baimendutako lekuetan.

Salbuespen gisa, bide publikoan kartelak eta banderatxoak baimendu ahal izango dira aipatutakoak ez diren beste kasu batzuetan.

2.- Udalak arautuko ditu kasu guztietan xede hori duten espazioak erabiltzeko baldintzak eta dagokion baimena lortzeko beharreko tramiteak, eta dagokion fidantza eskatu ahal izango du garantia gisa. Halaz ere, inoiz ezin dira zuhaitzak erabili kartelak edo banderatxoak zintzilikatu edo jartzeko.

3.- Artikulu honek aipagai duen baimenaren eskaerak honako zehaztapen hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- a) Kartel edo banderatxoaren edukia eta neurriak, publizitate bakoitzak hartzen duen azaleraren % zehaztuta.
- b) Jarriko diren lekuak.
- c) Instalaturik egongo diren denbora.
- d) Erretiratzeko eta egin ditzaketen kalteak konpontzeko konpromisoa.

4.- Eskaeraren eta baimenaren zehaztapenetara egokituko dira kartelak eta banderatxoak.

5.- Emaniko epea amaitu bezain laster kenduko dira kartelak eta banderatxoak. Sustatzaileak ez baditu kentzen, udal zerbitzuek erretiratuko dituzte, baina kostuak erantzuleak ordaindu beharko ditu. Horrez gainera, dagozkion santzioak jarri ahal izango zaizkie.

Ondorio berberak izango ditu baimenik gabe jartzen badira eta baimendutakora egokitzen ez badira.

6.- Artikulu honetan eta korrelatiboetan jasotako aurreikuspenak Irungo Udalar berari eta gainerako instituzio eta erakunde publikoei aplikatu ahal izango zaizkie.

45. Artikulua.- Eraikin bereziak.

1.- Historiko-artistiko gisa katalogaturiko eraikinetan eta enblematikoak direnetan ez da inolako publizitaterik onartuko, ezin izango dira kartelak, banderatoak edo errotuluak jarri, haien ezaugarrien berri ematen dutenak, eraikinean garatzen diren jarduerak aipatzen dituztenak edo bertako berritze edo birgaitze obrei dagozkienak izan ezik.

46. Artikulua.- Pintadak eta grafitiak.

1.- Debekatuta dago pintadak egitea, bai bide publikoan bai eraikin publiko edo pribatuen fatxadetan, hiri altzari, zuhaitz, estatua eta monumentuetan eta, oro har, hiriko paisaiako edozein elementutan.

2.- Era berean, debekatua dago grafitiak eta arrastoak egitea aurreko atalean zehaztutako esparru horietan guztietan.

3.- Salbuespena izango dira orubeetako hesietan, obretako itxituretan, arteko hormetan eta antzekoetan marrazten diren muralak, aurrez udal baimena lortzen bada eta hartan jasotako zehaztapenak betetzen badira.

4.- Eraikin publiko batean edo hiri altzarietan pintadak egiten badira, paperak jartzen badira, kristaletan marrazten egiten badira, kartelak jartzen badira edo hura hondatzen duen beste edozein ekintza egiten bada, Udalak erantzukizuna duen enpresa edo pertsonari leporatu ahal izango dizkio garbiketa eta egokitze fakturen kostuak, eta horrez gainera, santzioa ere jarri ahal izango zaio.

II. KAPITULUA.- Urbanizazio eta orubeen garbiketa.

47. Artikulua.- Espazio pribatuen garbiketa.

1.- Urbanizazio pribatuetako espaloiak, igarobideak, galtzadak, plazak eta lorategiak garbitzeko lana jabeek dagokie.

2.- Jabeek etxadiko barne patioak, orube partikularrak, merkataritza galeriak eta antzekoak garbitzeko obligazioa dute.

3.- Elementu pribatu horien guztien garbiketa egoeraren kontrola eta ikuskapena egingo du Udalak, eta erantzuleei garbitzeko eskatuko die, zeregin horretarako udal zerbitzuek emaniko aginduen arabera.

4.- Merkataritza lokalen jabeek beren fatxadak egokituko dituzte eraikinaren apaindura, mantenu eta ezaugarrietara, xede horretan zehaztutako burubideen arabera.

48. Artikulua.- Orube eta lur pribatuak.

1.- Orube eta lurren jabeek zabor eta hondakinik gabe eduki beharko dituzte horiek, eta beharreko osasun, higiene, segurtasun eta apaindura publiko balditzetan. Era berean, arratoiak eta intsektuak hilko dituzte horretarako baimena duen enpresa baten bidez.

2.-Artikulu honen lehen paragrafoan aurreikusitako egoera gertatzen ez bada, edo jabeak ez badaude, Udalak, izaera subsidiarioz eta legearen arabera indarrean dauden mugak kontuan harturik, beharreko neurriak hartuko ditu ondorio horietarako, eta lur horretara sartu ahal izango da aurreko paragrafoan jasotako xedearekin. Sortzen diren kostuak jabeek ordainduko dituzte.

TITULO IV.- BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA ETA ERABILERA

I. Kapituluak.- Xedapen orokorrak

49. Artikulua.- Irizpide orokorra.

Debekatuta dago bide publikoa obrak edo lanak egiteko edo, oro har, gainerako herritarrei erabiltzeko mugak jar diezazkiekeen beste edozein ekintza aurrera eramateko erabiltzea, bide publikoaren erabilera arrunt berezi eta erabilera pribatiboari dagokionean hurrengo artikuluetan jasotako araudiari kalterik egin gabe.

50. Artikulua.- Erabilera arrunt berezia.

1.- Jabari publikoko ondasunen erabilera arrunt berezia, aldi baterako okupazio lizentzia ematearen baitan egongo da, baldin eta jabari publiko hori ez bada eraldatzen. Lizentzia horiek ezeztatu ahal izango dira interes publikoko arrazoiak daudenean, eta interesatuak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik izango.

2.- Eskumena duen organoak jabari publikoaren okupazioa ukatu ahal izango du trafiko, bide segurtasun, trazatu, egoera eta herri-lan arrazoiengatik edo interes orokorreko beste edozein arrazoiengatik.

3.- Erabilera horrek jabari publikoko ondasunak eraldatu edo aldatzea eskatzen duenean edo zerbitzu publikoek ukituriko ondasunei dagokienean, kontzesio administratiboa lortzeko baldintzaren pean geldituko da.

4.- Erabilera publikoko zortasuna duten jabari pribatuko ondasunen okupazio lizentzia eskuratzeko, okupazio lizentzia eskatzen dutenek okupazio hori egiteko jabearen edo jabeakideen komunitatearen baimena aurkeztu beharko dute dagokien eskaerarekin batera, eta baldintza hori ez bada betetzen eskaera hori ez da tramitatuko.

5.- Erabilera pribatiboak eta aprobetxamendu bereziek dagozkien Prezio Publikoak eta Zergak ordaintzeko obligazioa ekarriko dute.

6.- Bide publikoaren okupazio bera hainbat lagunek eskatzen badute, erabakia hartzeko orduan objektibotasun, publizitate eta konkurrentzia printzipioak hartuko dira kontuan, eta baita deialdiaren oinarrietan jasotako gainerako meritu edo baldintzak ere.

51. Artikulua.- Estetika.

Bide publikoan instalatzen diren elementuak Udalak zehaztutako inguruaren irudi-irizpideetara egokituko dira, eta segurtasunaren alorrean aplikatu beharreko arau guztiak beteko dituzte. Lizentzia edo kontzesioaren betebeharra da, elementu horiek eta haien ingurua erabilera eta garbiketa egoera onean edukitzea, dauden gainerako hiri altzariak, zuhaitzak eta landareak errespetatuz.

52. Artikulua.- Erabilera orokorra.

Aurreko artikuluen ondorioetarako erabilera orokorra izango da, aurrez aldi baterako okupazio lizentzia eskuratzeko beharrik gabe, baldin eta eraikinen fatxada lerrotik ateratzen ez bada, establezimenduen kanpoan erakustokiak instalatzea, 54. artikuluan zehazten diren arauak errespetatuz.

Hala eta guztiz ere, eskumena duen organoak arestian aipaturiko elementu horiek kentzeko agindu ahal izango du, hiri altzarien inguruko udal irizpideak ez badituzte betetzen, edo espaloietan jende asko gelditzen bada gainerako herritarren joan-etorrietarako zailtasunak sortuz edo bide publikoaren erabilera arrunta eragozten bada.

II. Kapituluak.- Elementuak bide publikoan

53. Artikulua.- Makinak eta objektuak bide publikoan

Debekatuta dago bide publikoan edo bide publikotik sartu daitekeen lekuetan edozein eratako jolas-makinak eta kontsumo produktuak saltzeko makinak jartzea, udalaren baimenik gabe.

Dagokion baimenik gabe bide publikoan jarritako objektu, ondasun edo material oro, leku horretatik kendu eta eskumena duen agintariak zehaztutako beste leku batera eraman ahal izango da, eta gainera, okupazioaren egileari dagokion santzioa jarri ahal izango zaio. Lekualdatze horrek eragindako gastuak haien arduradun, jabe edo titularrei leporatu ahal izango zaizkie.

54. Artikulua.- Erakustokiak bide publikoan.

Dagokion sektore legeak xedaturikoari kalterik egin gabe, bide publikoan erakuslekuen bidez produktuak erakusteko baimena eman ahal izango da, baldin eta honako arau hauek betetzen badituzte:

1.- Establezimenduaren kanpoan ezin izango da erakusten diren produktuak saldu. Debehatuta dago bide publikoan produktu horiek pisatu, neurtu edo kobratzeko elementuak jartzea.

2.- Erakuslekuak behar bezala margotuta eta korrosiotik babestuek egongo dira, guztiz garbi, eta gurpilak izango dituzte alde batetik bestera eramateko. Era berean, beharreko finkatze-elementuak izango dituzte erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli ez daitezen, haien egiturak ez du ertz zorrotzik izango eta lurrean ez da inolako euskarririk jarriko erakusleku horien egonkortasuna ziurtatzeko.

3.- Bertan instalaturiko hiri altzarien elementuak kendu ondoren, 1,5 metrotik gorako azalera duten espaloietan soilik jarri ahal izango dira erakuslekuak

4.- Instalatu beharreko elementuek kokatzen diren espaloien herenaren zabalera izango dute gehienez, eta beti ere, metro bat baino txikiagoa.

5.- Erakuslekuak eraikinaren fatxadari loturik instalatuko dira, eta instalazio horren luzerako garapena ez da establezimendurako sarrerari dagokion luzera kendu ondoren establezimenduak hartzen duen fatxadaren luzera baino handiagoa izango.

6.- Erakuslekuak establezimenduaren kanpoaldean eduki ahal izango dira merkataritza ordutegian. Ordutegi hori amaitzean erretiratu egin beharko dira, eta okupatzen zuten bide publikoa garbi utziko da.

7.- Erakusten diren produktuak elikagaiak badira, lurretik 75 cm-ko altueran jarriko dira gutxienez, eta gainerako produktuak, berriz, lurretik 60 cm-ra.

8.- Erakuslekuak nahi adina apal izango dituzte, lurretik gora 1,75 metroko altuera arte. Erakuslekuak eta merkantziak osaturiko multzoa ez da 2 metrotik gorakoa izango.

Udalak, udal zerbitzu teknikoek beharreko txostena egin ondoren, inolako erakuslekurik jartzeko baimena ukatzeko gaitasuna izango du zirkunstantzia bereziak egotegatik, gehienen onerako komeni denean.

55. Artikulua.- Obrak, karga eta deskarga hodiak eta edukiontziak babesteko hesiak.

1.- Derrigorrez hesiak jarriko dira eraikinak eraikitzeke, kanpoaldean obrak egiteko eta barnealdean obrak egiteko materialekin bide publikoa okupatu behar denean. Igarotze beharren edo beste edozein zirkunstantziaren ondorioz ezin badira hesiak instalatu, zubi ibilkorrak edo aldarnioak jarriko dira. Espaloiaren espazio librea inoiz ez da 0,80 metrotik beherakoa izango. Hori ezinezkoa bada, behar bezala babestu eta seinalizatutako ohol edo pasabideen bidez eratuko dira igarobide horiek oinezkoak bertatik pasa daitezzen, eta behar izanez gero, irekitako zangak itxi egingo dira behin-behinean. Nolanahi ere, enpresa eraikitzaileak beharreko neurriak hartuko ditu oinezkoen eta ibilgailuen mugikortasuna eta segurtasuna ziurtatzeko.

Edukiontziekin bat eginez gero, Txingudiko Zerbitzuei dei egingo zaie behin-behinean berriro ezarri dezaten.

2.- Aurreko 1 zenbakiak aipagai dituen eraikuntza obretan, materialen eta obra hondakinen karga eta deskargarako hodiak ere jarri beharko dira derrigorrez, eta beharreko neurriak hartuko dira pertsoneri edo gauzei kalterik ez egiteko, edo bide publikoaren ohiko erabilera edo zirkulazioa zaildu edo okerragotu ez dezaten. Kasu guztietan, obra babesten duen hesi edo elementuak beharreko altuera eta edukiera izango ditu, materialak eta obra hondakinak espaloi eta galtzadetara erori ez daitezzen.

Era berean, fatxadak eta abar garbitzen direnean, hustubideak espaloietara zuzenduko dira derrigorrez.

3.- Ahal den guztietan, material aurrefabrikatuzkoak izango dira hesiak. Inoiz ere ez da obrako mailazoa erabiliko. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan, Udal Administrazioak derrigorrez aipaturiko material horiek erabilarazi ahal izango dizkie eraikitzaileei.

Oinezkoentzako igarobideak mugatzen dituzten metalezko hesiak edo hesi adierazleak oso egoera onean kontserbatuko dira.

4.- Hesiak ezin izango dute baimendutakoa baino bide publikoaren azalera handiagoa okupatu. Arau-haustea gertatuz gero, jar litezkeen santzioei kalterik egin gabe, Udal Administrazioak hesia eraisteko eta baimendutako mugen barnean beste bat eraikitzeke agindua emango dio obrako kontratistari; ez badu

egiten, udal zerbitzuek egingo dute obrako kontratistaren kargura. Obren jabea izango da aurreko zenbakian zehaztutako obligazioen erantzulea.

Bide publikoan dauden eragozpenen seinaleak Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantzan eta Zirkulazio Araudi Orokorrean xedaturikoaren arabera ezarriko dira.

5.- Lizentzia eskatzen duenak hesien eta karga eta deskargarako hodien kokalekua eta tamaina zein diren jakinaraziko dio Udal Administrazioari.

6.- Obra guztietan kartel bat egongo da eta bertan argi adieraziko dira udal lizentzia, lizentziaren titularraren identifikazioa, obra lizentziaren xedea eta hasteko eguna eta lan ordutegia.

7.- Bide publikoetan eta espaloietan merkantziak, eta artikulua honen 1. atalean zehaztu bezala gutxieneko igarobidea eragozten duten objektuak edo elementuak jartzen badira, udal zerbitzuek erretiratu ahal izango dituzte.

8.- Edukiontzia, arau orokor gisa, espaloietan jarriko dira, zuhaitz-txorkoen artean, horrelakorik baldin badago, eta 1,50 metroko igarobidea utziko da gutxienez libre, edo bestela galtzadetan eta baimendutako aparkalekuetan egokituko dira, eremu horietatik atera gabe eta ibilgailuen zirkulaziorako trabarik egin gabe. Interesatuak behar bezala seinalizatuko du edukiontzia.

Edukiontzia jarri eta jasotzeko maniobrak Zirkulazio Kodean aurreikusitako moduan egingo dira, trafikoari eragozpenik sortu gabe, eta erabat debekatuta dago edukiontzia 8:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara jarri edo jasotzea.

9.- Bide publikoa kamioen gaineko garabi edo antzeko okupatzeko, eta hartan aldarmioak jartzeko, udal baimena lortu beharko da aurretik.

Udal baimena lortu ondoren, honako betebeharrak izango ditu baimenduak:

a) Galtzadan oztopoa behar bezala seinalizatuko du, eta baita dauden ibilgailuen eta oinezkoen trafikoa ere.

b) Behar diren segurtasun neurri eta prekauzio guztiak hartuko ditu zerbitzua egiten den bitartean pertsonen eta gauzen osotasun fisikoa babesteko. Lizentziaren titularra izango da horrelako kasuetan gerta litezkeen kalteen erantzulea.

10.- Aurretik jakin ezin diren zirkunstantziengatik harri-morroiloak, teilak edo etxe, lokal edo, oro har, eraikinetako beste zatiak bide publikora erortzen badira, pertsona eta gauzentzako arrisku larria sortuz, Udalak, titularrak ezin badu, beharreko prebentzio neurriak jarriko ditu bide publikoan erabiltzaileen segurtasuna ziurtatzeko.

Berehala, Udalak titularrari, administratzaileari edo komunitateko lehendakariari edo jabetzaren arduradunari eskatuko dio premiaz eta gehienez ere hamar eguneko epean, aurreko atalean aipatutako prebentzio neurriak har ditzan eta, ahalik eta azkarren zuzen ditzan dauden oker edo eskasi horiek.

Hamar egun horiek igaro ondoren, ez badira eskatutako neurriak hartu, Udalak bide publikoaren okupazio gisa hartuko du egoera, eta dagokion tramitazioa egiteko eta beharreko tasak ordaintzeko eskatu ahal izango du.

56. Artikulua.- Filmen filmaketa bide publikoan.

Filmen filmaketa bide publikoan, eta zehatzago adierazteko, udal lorategi eta parkeetan, lizentzian zehaztutako leku, ordutegi eta baldintzetan egingo da.

57. Artikulua.- Bide publikoan dauden kioskoak

1.- Kasu guztietan, bide publikoan dauden kioskoek baldintza pleguan zehaztutako arauak beteko dituzte, eta baita bide publikoa aldi batean okupatzeko kontzesio erabaki edo lizentzian zehaztutakoak ere.

2.- Kioskoek hiriko zerbitzu publiko eta apainduraren lagunduko dute, eraikitze erabilitako materialen, argitasunaren, erabilera orokorreko prestazioen edo dituzten instalazio osagarri berezien bidez, hauex da, ordua emateko gailuak, seinalizazio klimatologikoa, telefono publikoa, turismo eta ikuskizunen kartelak eta antzeko beste tresna edo zerbitzuak.

3.- Kioskoaren instalazioa ez da inoiz ere aitzakia gisa erabiliko emaniko erabilera pribatiboaren perimetroa zabaltzeko, kaxa, asto edo argitalpenak erakusteko beste edozein elementuren bidez. Arau hori ez bada betetzen, dagokion sartzioari kalterik egin gabe, udal zerbitzuek arestian aipaturiko elementu horiek erretiratuko dituzte kontzesiodunaren edo bide publikoaren okupazio lizentziaren titularraren kontura.

4.- Bide publikoaren aprobeixamenduaren zeseak, edozein dela ere horren arrazoia, Udal Administrazioaren aurrean dagokion baja adierazpena aurkeztera behartzen ditu titularrak, hori gertatzen den urteko abenduaren 31 baino lehen. Baja horrek ez du eraginik izango baja eskaera egiten den hurrengo urte naturala bitarte.

5.- Kioskoaren edo establezimenduaren edozein "inter vivos" zesio, alokairu edo eskualdatze egiteko, "mortis causa" esate baterako, Udalak onartu eta baimendu behar du, jabe berriak Administrazioak eskatzen dizkion baldintzak

bete ditzan, eta administrazioak eskualdatzeari uko egin ahal izango dio ulertzen badu jabe berriak ez dituela zehaztutako baldintzak betetzen.

58. Artikulua.- Kiosko motak

1.- Bide publikoan kokaturiko kioskoak argitalpenenak, ONCE erakundearenak edo Udalak erabakitako beste edozein gauzarenak izan daitezke.

2.- Argitalpenen kioskoek liburuak, aldizkariak eta nazioko eta atzerriko egunkariak sartzea izango dute xede, eta hainbat kategoriatan sailkatu ahal izango dira instalazio lekuen edo saltzen dituen argitalpenen motaren arabera, bide publikoa okupatzeagatik dagokion kontzesioaren kanona edo prezio publikoa zehaztu ahal izateko. Udal zerbitzuei dagokie kiosko horien diseinua eta kokalekua zehaztea.

3.- Estatuko Itsuen Erakundeko kideek beren jarduera bide publikoan burutu ahal izango dute zehazten den kopuru eta moduan. Udal zerbitzuek salmenta kabinen diseinua zehaztu ahal izango dute, eta kabina horien banaketa diseinatu ahal izango dute Erakundearen Herrialdeko Ordezkaritzaren onarpenarekin.

III. Kapituluak.- Mudantzak.

59. Artikulua.- Mudantzak

Mudantzek eragiten dituzten karga eta deskarga lanak bide publikoan egiten badira, dagokion udal lizentzia lortu beharko da derrigorrez, zerbitzu hori emateko legez gaitutako pertsona fisiko edo juridikoek eskatuta. Lizentzia hori lana egin behar den eguna baino gutxienez 15 lanegun lehenago eskatuko da, eta baimenean zehaztutako baldintza guztiak beteko dira lan hori egiteko momentuan.

Ondorio horietarako, mudantza izango da Irungo udalerriaren barnean altzariak eta gainerako etxe tresnak lekuz aldatu edo garraiatzea, eta baita bulegoko materialak ere garraiatzea ere (altzariak, dokumentuak eta abar), baldin eta lan horietarako 3.500 Kg edo gehiagoko pisu baimendu gorena duten ibilgailuak erabili behar badira, edo pisua txikiagoa izan arren, karga eta deskargarako kanpoko baliabide mekanikoak erabili behar badira (baliabide horiek eskuko poleak edo polea mekanikoak izan daitezke), edo lekualdatzearen lan osagarriak eragiten dituenen.

V. TITULUA.- ZIGOR ERREGIMENA.

I. Sekzioa.- Arau-haustek, isunak eta borondatezko lanak.

60. Artikulua.- Arau-haustek.

1.- Arau-hauste administratiboa izango da Ordenantza honek zehaztutako xedapenak ez betetzea eta bertan zehazten diren debekuak urratzea.

2.- Alkatetza-Lehendakaritzak edo hark aukeratutako Organoak zigortuko ditu Ordenantza honetan xedaturikoaren arau-haustek, Titulu honetan xedaturikoaren arabera, legeriak baimentzen dituen mugen barnean, eta kasu bakoitzean egon litezkeen erantzukizun zibil eta penalei kalterik egin gabe.

61. Artikulua.- Arau hauste motak.

1.-Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, honako hauek kontuan harturik: nahita egiten den, zibismo eza jokabidean, zabarkeria maila, pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskua, eragindako kaltearen larritasuna eta arau-haustea berriro egitea.

2.-Ondorio horietarako, berriro ere arau-haustea egin dela ulertuko da, arau-hausleari aurreko hamabi hilabeteetan behin edo gehiagotan isuna jarri bazaio.

3.- Arau-hauste arinak izango dira honako artikulua hauei eginiko arau-haustek:

8.1. eta 3., 12.2. (e izan ezik), 13, 14.2. (c, d, e eta f izan ezik), 16, 17, 20 (5.a izan ezik), 21, 22.2., 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31.1., 32, 33, 34, 35 eta 42.

Arau-hauste arina izango da jabari publikoko ondasunetan kalteak eragitea, kalte horien zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa ez bada.

Arau-hauste arina izango da Agintaritzaren Agenteek emaniko agindu bat ez betetzea, Ordenantza honen zehaztapenak betetzeko eskakizunari loturik dagoenean, baldin eta arau-hauste horrek izaera penala ez badu.

4.-Arau-hauste larriak izango dira honako artikulua hauei eginiko arau-haustek:

12.2.d) eta e), 14.2.c) (soilik zuhaitzetara igotzea) eta e) (soilik obrako materialak pilatzea), 14.2.f), 15.3., 36, 37, 38, 39, 40, 43.2, 44, 45, 46, 47, 48, 53, 54, 55, 56, 57, 59.

Arau-hauste larria izango da jabari publikoko ondasunetan kalteak egitea, kalte horien zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa eta 1.000.000 euro baino txikiagoa denean.

Gainera, arau-hauste larria izango da arau-hauste arin bat behin eta berriro egitea.

5.- Oso arau-hauste larriak izango dira honako artikulua hauei eginiko arau-haustek:

14.2.c) (zuhaitzetara igotzea izan ezik), 14.2.e) (soilik produktu toxikoen isurketa).

Oso arau-hauste larria izango da jabari publikoko ondasunetan kalteak egitea, kalte horien zenbatekoa milioi bat eurotik gorakoa denean.

Gainera, arau-hauste larria behin eta berriro egitea oso arau-hauste larria izango da.

62. Artikulua.- Isunak.

1.- Arau-hauste arinei 60 eta 750 euro arteko isuna jarriko zaie; arau-hauste larriei 751 eta 1.500 euro artekoa; eta oso arau-hauste larriei 1.501 eta 3.000 euro artekoa.

Zenbateko horiek aplikatu ahal izango dira, dagokion sektore araudiak zehatz ditzakeen isunei kalterik egin gabe.

2.- Ordenantza honen beste edozein ez betetze, aurreko artikulua honi loturik zehaztutakoaren arabera, isun gisa zenbateko ekonomikoa bereziki zehaztuta ez duten kasuetan, 60 eta 750 euro arteko isunarekin zigortuko dira

3.- Ezar daitezkeen isunak alde batera utzita, behar bezala ordainduko dira jabari publikoko ondasunetan eginiko kalteak, eta baita eragindako galerak ere, hori guztia dagokien udal zerbitzuek aurrez ebaluatu ondoren. Kalte eta galera horien zenbatekoa modu betearazlean zehaztuko du isuna jartzeko eskumena duen organoak.

4.- Arau-hauste larriak edo oso larriak behin eta berriro egiten badira, arau-hauslea baimenen eta kontzesioen jabe izateko gaitasunik gabe utzi ahal izango da bat eta hiru urte arteko epean.

5.- Ordenantza honi egindako arau-hausteeetan erabilitako tresna edo instrumentuak nahiz arau-hauste horretatik lortutako emaitza konfiskatu ahal izango ditu Udaltzaingoa.

63. Artikulua.- Isunen ordezeko borondatezko lanak.

1.- Hona hemen zehazten diren isun ekonomikoen ordezeko formulak: kaltea konpontzea eta borondatezko lanak.

2.- Arau-hausleak eginiko kalte materiala konpontzen badu, bere borondatez eta zigor espedientea hasi baino lehen, espedientea ez hasteko eskatu ahal izango du aldez aurreko informazio denboraldian, baldin eta Udalak ez badu jakiten arau-hausleak jokabide ez-zibikoa izan duela behin baino gehiagotan.

3.- Arau-hauste baten ondorioz gainerako hiritarrei eginiko kalteak ahal den neurrian konpondu ahal izateko, arau-hausleak isuna barkatzeko eskatu ahal izango du, gainerako komunitatearen onerako borondatezko lanak egiteko edo jokabide zibikoak sortzeko edo antzeko ekintzek eragindako kalteak konpontzeko konpromisoa hartuz. Kontuan izanik lan horien borondatezko izaera, ez da isuntzat hartuko.

II. Atala.- Erantzuleak.

64. Artikulua.- Erantzuleak.

1.- Ekitaldi publikoetan antolatzailea edo sustatzailea izango da erantzulea.

2.- Adin txikiko batek Ordenantza honetan xedaturikoa ez badu betetzen, haren gurasoak edo adin txikiko horren tutelaz arduratzen diren adin nagusiko pertsonak izango dira erantzuleak.

3.- Sustatzaileari eta kontratistari dagokie solidarioki, beren obrek ukituriko bide publikoaren garbiketaren erantzukizuna, karga eta deskarga lanetan eta obretan sartu eta haietatik ateratzean ibilgailuek sorturiko zikinkeria barne, hurrengo puntuan zehaztutakoari kalterik egin gabe.

4.- 28. eta 39.1 artikuluetan jasotako arau-hausteetan, erantzule solidarioak izango dira jabea eta ibilgailuaren gidaria.

5.- Jabeak, eta subsidiarioki animaliak eramaten dituzten pertsonak dira animalia horiek beste pertsona edo gauzei egin diezazkiekeen kalteen eta animalia horiek sor dezaketen zikinkeria erantzuleak.

6.- Iragarkia egiten duena izango da kanpoko publizitateari dagozkion arau-hausteen erantzulea.

7.- Gainerako kasuetan, Ordenantza honetan jasotakoa pertsonalki urratzen duena izango da erantzulea.

III. Atala.- Kaltea konpontzea eta garbiketaren egoera leheneratzea.

65. Artikulua.- Kalteak ordaintzea.

1.- Arau-hausleek eginiko kalteak, erantzukizuna duten pertsonak ordainduko dituzte beti.

2.- Udalak, dagokion zigor espedientea hasi ondoren, erantzulearen kontura, beharreko ekintza guztiak egingo ditu gauzak arau-haustea baino lehen zeuden egoerara itzultzeko, dagozkion isunei kalterik egin gabe.

3.- Udaltzaingoak Ordenantza honetan xedaturikoa urratzen duten ekintza goriak geldiarazteko agindua emango du, eta obeditzen ez duten arau-hausleei ez die utziko arau-haustea egiten jarraitzea, dagokion isunari kalterik egin gabe.

IV. Atala.- Prozedura.

66. Artikulua.- Zigor prozedura.

1.- Alor honetan zigorrak jartzeko gaitasuna erabiltzeko zehaztutako legeko edo arauko prozedura beteko da isunak jartzeko garaian.

2.- Zigor prozedura hasteko eskumena duen organoak jakiten badu ekintzak, arau-hauste administratiboa izateaz gainera, arau-hauste penala izan daitezkeela, eskumena duen organo judizialari jakinaraziko dio, eta zigor prozedurak ez du aurrera egingo, behin hasi ondoren, agintaritzak bere erabakia jakinarazten ez duen arte. Horrez gainera, gauzak arau-haustea baino lehen zeuden egoerara bihurtzeko zuhertasunezko neurriak hartu ahal izango ditu Udalak.

Zigor espedientea geldirik dagoen bitartean, arau-haustearen preskripzio epea nahiz prozeduraren iraungitze epea geldirik daudela ulertuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabeturik gelditzen dira Ordenantza honetan jasotako gaiak arautzen dituzten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, haren edukiaren aurka dauden guztian.

AZKEN XEDAPENA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik 15 egunera hasiko da indarrean Ordenantza hau.